



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2.010eko IRAILAREN 21ean IZANDA- KO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño (Hezkuntza Arloko Zinegotzia).
- Idoia Fernández (Euskara Arloko Zinegotzia)
- Berritzeguneko Euskara Teknikaria
- Aita Villasante Udal Euskaltegia
- Gernikako AEK
- Allende Salazar ikastetxea
- San Fidel Ikastola
- Seber Altube Ikastola
- Barrutia Ikastetxea
- Mertzedede ikastetxea
- Gernika Institutua
- Barrutialde Institutua
- Helduen Heziketarako Ikastegia

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria I)

Hasiera ordua: 10,00

Amaiera ordua: 12,00.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

**1.- IRAGAN IKASTURTEAN ETA UDAN IKASLE ETORKINEI
ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN
EMAITZAK AZTERTU ETA 2010-2011 IKASTURTERAKO
EGITASMOA ZEHAZTEA.**

Gernikako AEKko ordezkariak azaldu ditu udako ikastaroen txostenak.

- Bi talde aritu izan dira, ikasturtekoari jarraiki, B hasierako taldean 8 ikasle eta A aurreratuen taldean 7 ikasle. Aurtengoan kopurua gutxitu egin da, pasatutako izenetatik ere bajak izan dira eta.
- Osterantzeko arazoak. Batzuk ezin izan dute ikastaroan jarraitu familiako ardurak bitarteko.
- Udako ikastaroa konplikatuagoa da, batik bat irteerak lantzen direlako eta metodologia aldetik ere irakasleen lana areagotu egiten delako.
- Ikasleak, eta gurasoak ere, arduratuta azaldu zaizkigu, ikastaro hauek jarraituko duten jakin nahian, badakitelako ikastetxeetan errefortzurako laguntza bereziak murriztu egingo direla.
- Ordutegiari dagokionean, udako ikastaroetan euren gustuetara moldatzen gara.

Datorren ikasturteari begira, zer egin? Iazkoan “0” mailakoak ezin izan genituen integratu. Beraz, aztertu egin beharko da aurten nola datozen zerrendak eta lehenetsuna zeintzuei eman, horren arabera eskaintza eta programazioa lantzeko.

Erabakiak:

1).- Iazko planteamenduari eutsi eskaeren arabera: mailak (hasiera eta sakontzea), ikasturteko ikastaroa (azarotik maiatzera; astean hiru ordu), udako ikastaroa.

2).- Ikasleak: DBHkoak. Onartu egingo dira LHkoak izan arren adinez DBHkoak lirakeenak.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

3).- Ikastaroetarako ikasle etorkinen zerrendak jasotzeko epemuga urriaren 4a izango da (datu pertsonalak, jatorria, noiz etorria, euskara maila).

2.- GURASOEI ESKAINITAKO IKASTAROAK

Aita Villasante Udal Euskaltegiko ordezkariak AITTAMAK egitasmoa azaldu du, guraso euskaldunei begirako unitate didaktikoak biltzen dituena. Aurreko ikasturtearen bukaeran eta oraingoaren hasieran aritu izan dira eskolaz eskola horren zabalkundea egiten. Beraz, bildutakoak jakitun daude eta matrikulazio prozesua martxan dago. Helburua alfabetatzea izanik, etxerako lanak egiten hurrei laguntzeko trebakuntza eskaintzea da helburu nagusia.

Betalde, guraso erdaldunei euskalduntze ikastaro bereziak eskaintzea Gernikako AEK euskaltegiarekin bideratuko da. Horretarako, urte bezala, fitxak banatuko dira eskoletan aurre-matrikularako, urrian zehar taldeak eratu ahal izateko.

3.- IRAKASKUNTZA ZENTROEI ESKOLAZ KANPOKO KULTUR EKINTZETARAKO ZUZENTZEN ZAIZKIEN DIRU LAGUNTZAK BANATZEKO IRIZPIDEAK FINKATZEA 2010-2011 IKASTURTERAKO (DIRULAGUNTZA OROKORRA ETA ESKOLA KONTSEILUTIK KOORDINATZEN DIREN JARDUERETAKOA).

Aurreko urtean erabilitako irizpideak argitu ditu batzordeko idazkariak.

Erabakia (aurreko ikasturtean erabilitako irizpideekin jarraitzea):



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

a).- Kultur ekintzetarako burutzen den kopuru orokorrari dagokionean, zentro guztiei gutxieneko 400 eurokoa ematea eta gainerakoa zentro bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera banatzea.

b).- Eskola Kontseiluaren Batzordetik koordinatzen diren ekintzak direla-eta (antzerki astea, abesbatzen kontzertuak, dantzari eguna, idazlan koadernoak), zentro bakoitzari parte hartzen duen ekintza bakoitzeko kopuru finko bat ematea (aurreko ikasturtean 500 euro izan ziren; dantzarako 2.300 €).

c).- 2011eko aurrekontuan Hezkuntza Arloko diru laguntzetako partidan igoserarik badago, Udal Eskola Kontseilua bilduko da zertarako erabili ebazteko.

4.- ZENTROETAKO “EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK” GARATZEARREN 2009-2010 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA ONARTZEA.

Batzordeko idazkariak Euskara Sailak egindako hausnarketaren berri eman du, hau da, Plan Estrategikoaren ildotik eta egindako diagnostiko guztien arabera, “familia transmisioa”-ren berebiziko garrantzia agertzen da hizkuntza ohiturak finkatu eta erabileran eragiteko. Gainera, Berritzegunetik abiatu den inkesta bereziaren emaitzetan ere islatzen da beharizan hori. Beraz, orain arte indarrean egon den araudian aldaketa batzuk egiteko sasoia litzatekeela uste du, orain egindakoaren gainean beste urrats bat emateko zentroetako hizkuntza normalkuntza planetan. Jarraian, araudirako planteatzen diren aldaketak azaldu ditu.

Berritzeguneko ordezkariak aipatu duenez, gurasoekiko komunikazioaren arloa lantzen da eskolaren dinamikan hizkuntza irizpideen arabera,

Erabakia:



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

- 1).- Araudiari dagokionean, diruz lagunduko diren atalak (5. klausula) egokitzea onartu da, familia transmisioaren atalari lehentasuna emanda. Gainerakoa (egitasmoen puntuaketa,...) berdin uztea erabaki da.
- 2).- Dirulaguntza deialdia egingo da eta eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatuta.
- 3).- Diru kopuru orokorra 25.000 €koa izango da. Beraz, araudiaren bosgarren araua honela geratuko da:
 - a).- 1.000 € gutxienekoa, zentro bakoitzari.
 - b).- 5.000 €ikasle kopuruaren arabera banatzekoa.
 - c).- Gainerakoa (kopuru orokorrera artekoa) egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa (seigarren arauari jarraiki).

5.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA ETA GAINERAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA.

Deialdiarekin bidalitako eranskinak azaldu dira, Udal saila desberdinetatik eskola mundura zuzendutako jardueri buruzko direktorioa. Azpimarratu egin dira hurrengoak:

a).- EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALAGOA.- Batzordeko Idazkariak azalpenak eman ditu 2010eko Euskarazko Produktuen Katalogoa dela eta. Euskara Sailaren asmoa jostailu saltokiekin kanpaina berezia burutzea da, iazkoari eutsiz eta katalogoa bera baztertea. Aurrekontu murrizketak ere badauka zerikusia, baina eraginkorrago jotzen da merkatuan bertan eragitea, osterantzeko informazioa zabal-zabal dagoelako interneten eta abarretan.

Erabakia: Euskarazko Produktuen katalogoari buruzko informazioa LH eta DBHko ikasle guztiei banatuko zaie (orri berezia), ploter bereziak jarriko



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

dira jostailu dendetan eta euskarazko produktuetan %5eko deskontua izango da.

b).- EUSKARA ZINE ARETOETARA.- Batzordeko Idazkariak Tinko Elkartearen eskaintzaren berri eman du. Bildutako zentroek diotenez, eurak ere jakitun daude egitasmoaz eta Tinko Elkartek planteatutako egutegia jaso dute.

c).- GAZTEZULO ALDIZKARIAREN PROPOSAMENA.- Aurreko ikasturtean izandako esperientziari eutsiz, Euskara Arloak eskaintza hori 2010-2011 ikasturterako errepikatzea erabaki du eta DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzentzea. Hemen ere aurrekontu murrizketak agintzen du.

Erabakia:

1).- Erabakia: Gaztezulo aldizkariak egindako eskaintza ontzat ematea eta DBHko 3. eta 4. mailakoei zuzentzea.

2).- Egitasmo honi lotuta hurrengo faseak betetzea zentro bakoitzean:

- Gaztezulo aldizkariko arduradunak zuzenduko dira zentroetara, urrian gutunak gurasoei bideratzeko.
- Azarotik apirilera bitartean doan banatuko zaie ikasleei, kasu bakoitzean zentroak finkatu moduan (etxeetara zuzenean edota zentroan bertan).

3).- Azken fasea, inkesta eta harpidetza sustapena, aldizkariak berak bideratu beharko du bere baliabideekin..

d).- KLIK ETA KLIK PROGRAMA.- Aurreko ikasturteko esperientziari jarraiki, parte hartzeko proposamena luzatu zaie DBHko zentro guztiei. Momentuz, hurrengo ikasturterako Mertzede Ikastetxeak eta San Fidel Ikastolak dute jarraitzeko asmoa programa horrekin.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

e).- UDAL LIBURUTEGITIK ESKOLA MUNDURAKO ESKAINTZA

Andrea Ayape Udal liburutegiko arduradunak informazio orria banatu eta azalpenak eman ditu eskoletara begirako eskaintza dela eta. Erakunde gisa bazkide izatearen abantailak azaldu ditu.

Txartelak duen balioaz aritu da. Liburutegia Euskadiko liburutegien sarean dago eta maileguak eskatu ahal dira edozein liburutegitara. Gaineraz, eskola gisa material multzoa eta maileguan utz daiteke eta epe luzeagorako gainera.

Allende Salazar ikastetxeko ordezkariak interesgarria deritzo bazkide fitxaren zabalkundea ere eskoletan bertan gurasoekin lantzea eta liburutegiko arduradunak atseginez hartu du proposamen hori.

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderari edo eskaera berezirik azaldu.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

BATZORDE-BURUA,

BATZORDEKO IDAZKARIA,

Iñaki Gorroño

Bittor Zarrabeitia